

## ABOKATU EUSKALDUNEN EGUNA: Pauso bat aurrera!

Pauso bat aurrera! Pauso bat aurrera egin nahi dugu Bizkaiko abokatu euskaldunen batzordeko kideok. Horretarako, Bizkaiko abokatu euskaldunen kezka, iritziak, ekarpenak, kritikak jaso nahi ditugu aurrerantzean lan eraginkorragoa egin ahal izateko. Era berean, Bizkaiko abokatu euskaldunen sarea trinkotu nahi dugu, ekintza ludikoen bidez eta elkarrekin berba egiteko aukerak baliatuz.

2016ko abenduaren 2an lehenengoz Bizkaiko abokatu euskaldunen eguna egingo dugu. Goizean Abokatuen Bazkuneko areto nagusian izango gara.

Helburua: abokatu euskaldunen batzordea abokatu euskaldunei erakutsi.

Eguna: abenduaren 2a, ostirala.

Lekua: Bizkaiko abokatuen bazkuneko areto nagusian.

Egitaraua:

Ordua	Zer?	Nork?
9:30	Abokatu euskaldunen batzordea aurkeztu: orain arte egindakoak, hemendik aurrerakoak eta abar.	Jaime Elias eta Elixabete Piñol
10:00	Bi abokatu euskaldunen testigantzak: lan jardunean euskararekin izan duten harremana, oztopoak, bultzadak, ...	Endika Garai eta Izarra Begoña Aurkezlea: Agurtzane Jimenez de Bikuña
11:00	Kafea	
11:30	Lan-taldeak: <ul style="list-style-type: none"><li>- Euskaraz lan egiteko zer eskatuko zenioke Abokatu euskaldunen batzordeari?</li><li>- Euskaraz lan egiteko zer eskatuko zenioke Abokatuen Bazkunari?</li></ul>	
12:30	Lan-taldeetako ondorioak partekatu plenarioan.	
13:00	Amaiera: Bazkuneko abesbatza.	

14:30 bazkaria Abando hotelean. Horren ostean, bertsoak izan ditugu: Galder Bilbao (Bizkaiko Bazkuneko abokatu), Andere Arriolabengoa (Arabako Bazkuneko abokatu) eta Sustrai Colina (zuzenbidean lizentziatua). Bazkariak 25 euro balio du.

Izena emateko jardunaldian zein bazkarian bidali posta elektronikoa bat honako helbidera:

[abokatueuskaldunak@icasv-bilbao.com](mailto:abokatueuskaldunak@icasv-bilbao.com)